

Kant-en etikaren eduki eta arazo nagusiak

Ibon Uribarri
Irakaslea

Lan honen asmoa Kant-en etikaren laburpen bat egitea da. Hala ere deskripzio soil bat egin beharrean Kant-en filosofiaren zenbait atal garrantzitsutan sakontzen saiatzen da. Hasteko arrazoimen teoriko eta praktikoaren jatorri amankomuna finkatzen da. Jatorri honek etikaren erdigunea den inperatiboarekin zer motatako harremana duen azaltzen da ondoren, autonomiaren ideiarene bitartez lotura hori ulergarri bihurtuz. Oinarri irmo honetatik zorionaren teoria onesten da eta postulatuena berriz gaitzetsi egiten da aurreko oinarria errespetatzen ez duen heinean. Ezin zuen bestela izan, teoria hau dogmatismoaren aztarna bat besterik ez baita. Azkenik, Kant-ek inperatiboaren formalismoa eta banakako ekintzen arteko beharrezko loturaren arazoa ez zuela sakonki aztertu azaltzen da; hala eta guztiz ere konponbideak hartu beharreko zuzenbidearen saiakera bat egiten da.

The objective of this work is to make a summary on the ethics of Kant. However, instead of making a simple description of the topic, this paper also tries to examine in detail several important aspects of the philosophy of Kant. First of all, the common origin of theoretical and practical reasoning are established. The type of relationship between this origin and the imperative that constitutes the basics for ethics are explained. The link between these two aspects can be understood through the autonomy of ideas. From this solid fundament the theory of happiness is accepted whereas that of axioms is rejected in as much as it does not respect the previous fundament. Since this theory is nothing but a remnant of dogmatism it could not be in any other way. Finally, how Kant does not thoroughly examine the problem of the necessary link between the formalism of the imperative and the individual actions is explained here it; furthermore, the possible path the solution should address is tentatively suggested.

Ondoren datozen lerroetan nire asmoa Kant-en etikaren laburpena egitea izan da, lehenik bere jatorri teorikoak eta kronologia aipatuz, ondoren bere oinarrizko edukiak landuz eta azkenik bere arazoak azalduz, hauetako bat izan baita ikerketa honen eragilea¹.

Arrazoimenaren batasuna²

Zati honetan metakritika bat egiten saiatuko naiz, hau da, Kant-en filosofia osotasun bat bezala hartuz bere oinarrizko aurrealdintzak azaleratzea izango da helburua. Hasteko arrazoimen teoriko eta praktikoko baten arteko banaketa nabarmenki baztertu beharra dago, ez dira inondik ere osotasun baten bi zati, biak alderantziz osotasun berdina baitira, zeina batean aurpegi batekin azaltzen den eta bestean bestearekin. Kant-en joera analitikoak ikerketak eskatzen dituen bereizketak errealtzat hartzeko ilusioa sortzen du. Baina funtsean analisiak banandutako zatien lotura agertzen da.

Arrazoimen huts praktikoko baten kritikarako hauxe eskatuko nuke nik osoa izan behar badu, espekulatiboarekin duen batasuna aurkeztu ahal izatea amankomuna den printzipio

batean, zeren azken finean ezin baitute erabilpenean bakarrik bereizten diren arrazoimen bat eta berbera besterik izan³.

Elkartze-puntu hori baliotasun unibertsala da; beraz, orokortasuna teoriako benetako judizioen eta etikako inperatibo kategorikoaren oinarri da aldiberean. Arrazoimenaren bi erabilpenen oinarrian dagoen printzipio hau formaltasun handienekoa da eta beraz erabat komunikagarria, banakotasun eta enpirikotasun orori ihes egiten baitio. Beraz, arrazoimen honen egoitza den subjektua ez da inoiz ulertu beharko banakako subjektu enpirikoa bezala, beste edozeinen lekua har dezakeen kontzientzia orokorra bezala baizik, hau da, subjektu traszendental bezala. Ezagutza eta erabakia bezalako zerbait emana bezala aurkitzen dugu, arrazoimenaren gertakariak dira (*Faktum der Vernunft*) eta subjektuak orokortasunaren arabera harreman-tzen da beraiekin.

Hala ere Kant-ek berak praktikaren nagusitasunari buruz hitz egiten du:

Interes oro azken finean praktikoa da eta arrazoimen espekulatibo beraren interesa baldintzatua da eta erabilera praktikokoan bakarrik osatzen da⁴.

1. Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker egin ahal izan da.

2. Ohi den bezala Kant-en testu guztiak Berlineko Akademiaren lan osoen argitalpenetik aipatzen dira, *Arrazoimen hutsaren kritika*-ren testuak izan ezik, lehen eta bigarren argitalpenen arabera aipatzen direnak, hauentzako A eta B hizkiak erabiliz eta jarraian orrialde-zenbakia emanez. 12, 14, 23 eta 33. aipamenak Kant-en eskuizkribuetatik jasotakoak dira, bi lehenengoak *Beobachtungen* laburpenaren bidez aipatutako lanaren prestaketan sortutako testuetatik hain zuzen. Kant-en aipamen guztien itzulpena neuk egin dut.

3. *Erfordere ich zur Kritik einer reinen praktischen Vernunft, dass, wenn sie vollendet sein soll, ihre Einheit mit der spekulativen in einem gemeinschaftlichen Princip zugleich müsse dargestellt werden können, weil es doch am Ende nur eine und dieselbe Vernunft sein kann, die bloss in der Anwendung unterschieden sein muss*, Grund. IV, 391.

4. *Alles Interesse zuletzt praktisch ist, und selbst das der spekulativen Vernunft nur bedingt und im praktische Gebrauche allein vollständig ist*, KpV. V, 121.

Arrazoimenaren egoitza den subjektua modu autonomoan ezagutzeko eta ekiteko arauak ematen dituen subjektua da: *Filosofia trascendental arrazoimen hutsaren autonomia da*⁵. Bai ezagutza eta bai ekimenaren oinarrian askatasuna daukagula esan nahi du honek. Dagoenarekin harremana unibertsaltasunaren bitartez egin beharra arrazoizkotasunaren ondorioa da eta beraz baldintzagabetua da, ez du jartzen subjektuak jasotakoak, bere askatasunak baizik:

Askatasunaren kontzeptua, bere errealitatea arrazoimen praktikoaren lege apodiktiko baten bitartez frogatzen den neurrian, arrazoimen hutsaren sistemaren eraikuntza osoaren giltzarria da, (arrazoimen) espekulatiboa barne⁶.

Beraz, kritikaren sistema osoaren azpian arrazoimenaren kide den askatasunaren ideia dabil, jatorriz legegilea den ahalmena, orokortze-legea jartzean autoeratzten dena.

Baina kanpoko objektuekin izan beharreko harremanak askatasun hau mugatu egiten du teoriaren aldean, jasotako datuak subjektuaren autonomia murrizten duen neurrian, etikan ez bezala, non askatasunak subjektua beraren gainean ekiten duen. Beraz, askatasuna etikan agertzen da bere araztasunean eta hortik bere nagusitasuna. Eta honen ondorio konkretu bat emateko, ezagutzak ez luke botere inposaketen bitarteko izan behar,

alderantziz askatasunezko benetako gizartea sortzen lagundu beharko luke.

Etikan sartu aurretik alde teorikoari begirada bat eman behar diogu irabazitako ikuspuntu berritik. Unibertsaltasunaren legearen arabera egia neurri handienez komunikagarria den munduaren errepresentazioa dela onartuz gero, eta Kant-ek *baliotasun objektiboa eta beharrezko baliotasun orokorra (guztientzat) baliokideak dira*⁷ dioenez, egia hori ahalbidetzen duten baldintzak aztertu behar dira. Horrela, ezagu-tzaren arabera emandakoarekin harremantzeko forma unibertsalak zentzumena eta adimena izango dira. Edo Kant-ek 90.eko hamarkadan erabiliko duen izendapen berantiar egokiagoari jarraituz harmena, edo errezeptibitatea, eta berezkotasuna, edo espontaneitatea.

Ezagutzan ematen dena jasotzeko forma unibertsala zentzumena da eta bere baldintza enpirikoa gorputza. Jasotakoa gabe gorputza ez zen biziko, baina batez ere, hau gabe subjektuak ez dauka ezer jasotzerik, ez baitago benetan subjekturik:

Pentsamendua gizakian bakarrik ezagutzen dugu, hau da, gorputz batekin harremanean⁸.

Traszendentalki hitz eginez harmena espazioa eta denboraren idealtasunak osatzen du, hau da, subjektua ez da lehendik nolabait dagoen espazio-denbora batean kokatzen, aitzitik

5. *Trans. Phil. ist Autonomie der reinen Vernunft*, Op. XXI, 105.

6. *Der Begriff der Freiheit, so fern dessen Realität durch ein apodiktisches Gesetz der praktischen Vernunft bewiesen ist, macht nun den Schlussstein von dem ganzen Gebäude eines Systems der reinen, selbst der spekulativen Vernunft aus*, KpV. V, 4.

7. *Es sind daher objective Gültigkeit und nothwendige Allgemeingültigkeit (für jedermann) Wechselbegriffe*", Prol. IV, 298.

8. *Welches (das Denken) wir nur am Menschen, d.i. in Verbindung mit einem Körper, kennen*, KU. V, 468.

berak jartzen ditu objektuekiko harremanaren baldintza subjektibo bezala. Horrela jasotakoa fenomeno da. Nolabait esateko, subjektuak harmen bezala eremu konkretu bat sortzen du espazioa eta denboraren bitartez, bera koordenatu kartesiar horietako ardatza izanik. Berak jarritako forma idealen bitartez topa ditzake objektuak fenomeno modura, hauen izatea sortzen ez duen arren. Kant-en idealismoa mugatua da, ondorengoek harantzago joan nahiko dute.

Berezkotasunaren alorrean, adimenaren kategoriak printzipioen bidez duten erabilpenari esker esperientzia bakarraren baldintza dira. Axioma eta aitzinapenek objektuak matematikagarri bihurtzen dituzte eta Analogiek iraupena, segida eta aldiberekotasuna unibertsalizatzen dituzte natura orokor bat sortuz: materia bakarra, segidaren serie amankomun bakarra eta denontzako aldiberekotasuna. Pentsa dezagun berriro koordenatu kartesiarretan: bertan harmenaren datuak puntu bezala finkatzen dira espazio-denboran, eta ondoren subjektuak objektuak eratzen ditu kategorien formen arabera. Honen esanahi sakonena honako hau da, ezagutza datu empirikoaren gainditzea dela, alde batetik sentimenaren formak eta bestetik adimenarenak behar baitira; ez dago inoiz datu hutsik. Subjektuak beti aukera dezake bere kokagunea jasotzen duenarekiko, hau subjektuaren mugikortasunaren menpean dago. Koordenatuetakoa ardatzaren

erdigunea mugikorra izateak (matematikan maiz erabiltzen den eragiketara), esperientziaren oinarrian askatasuna dagoela esan nahi du. Esperientzia egitea (*er-fahren*) bidaiaren jartzea da, mugitzea, ez fisikoki, baizik subjektuaren berezkotasunaren arabera arrazoizko mugikortasunaz (kategoriak adimenaren ekintzak dira, subjektuaren ekintza autonomoaren islada dira). Hau da zientzi saiakuntza ororen oinarria eta baita iraultza kopernikarraren azalpen sakonena ere, hain zuzen, subjektuaren pasibotasunagatik ardatzen erreferentzia Lurrean mantendu beharrean Eguzkian jartzea mugikortasun askearen arabera. Horrela dio Kant-ek askeki ekiten duen izakiari (*freihandelndes Wesen*) buruz hitz egin eta hamar lerroa:

Lurretik begiratuta, badirudi planetak batzuetan atzeraka egiten dutela, bestetan gelditu, bestetan aurreratu. Baina ikuspuntua Eguzkira eramaten badugu, arrazoimenak bakarrik egin dezakeena, hipotesi kopernikarraren arabera beren bide erregularra jarraitzen dutela ikusten dugu⁹.

Zer dago honen azpian? Oinarrizko idealismo etikoa.

Inoiz inor ez zen ausartuko askatasuna zientzian sartzera, lege moralak parte hartu ez balu eta berekin arrazoimen praktikoak, eta kontzeptu hori ez baligu ezarri¹⁰.

9. *Die Planeten, von der Erde aus gesehen, sind bald rückgängig, bald stillstehend, bald fortgängig. Den Standpunkt aber von der Sonne aus genommen, welches nur die Vernunft thun kann, gehen sie nach der kopernikanischen Hypothese beständig ihren regelmässigen Gang fort*, Streit, VII, 83.

10. *Man niemals zu dem Wegstücke gekommen sein würde, Freiheit in die Wissenschaft einzuführen, wäre nicht das Sittengesetz und mit ihm praktische Vernunft dazu gekommen und hätte uns diesen Begriff nicht aufgedrungen*, KpV. V, 30.

Ezagutza zientifikoa gizakiaren funts etikoan oinarritzen da, hau da, gauza soil batetik desberdin bihurtzen duen horretan. Bitarteko eta helburuen katea den mundu hau horrelako ezer ez den zerbaiten menpe dago.

Gizakia ez da gauza bat; ez da beraz bitarteko soil bat bezala erabil daiteken zerbait; ekintza guztietan bere baitango xedea bezala ulertu behar da¹¹.

Etikari buruzko lanen kronologia laburra

1760 urterarte Kant-ek ez du etika-rako interesik erakusten, zientziaren arloan egiten du lana. 60.eko hamarkadan metafisikaren kritika eta eszeptizismoa nagusitzen dira. Etikaren arloan Wolfften razionalismoa ukatu eta britainiarren eragina jasoko du sentipenaren alde. Baina gero eta gehiago ez du hau arrazoimenaren aurkako zerbait bezala ulertuko, arrazoizko zerbait bezala baizik Rousseuren bideari jarraituz. Sentipen arrazoigabeko soil ez da komunikagarria, ezin da orokortu. Herderrek dioskunez Leibniz, Hume eta Newton ikertzen zituen asmo berdinarekin irakurtzen zituen Kant-ek

garai hartan Rousseuren lanak¹². *Beobachtungen*-en garaian, 1764an, eragin hau nabaria da:

Ikertzaile naiz izatez. Dena ezagutzeko egarria sentitzen dut nigan, nire jakintza zabaltzeko desira mugagabea edo oraindik hobeto aurrerapen bete ororekiko poza. Garai batean uste izan nuen guzti hori zela gizatasunaren ohorea eta jendaila ezjakina mesprezatzan nuen. Rousseauk zuzendu ninduen. Gailentasun-ilusio hori desagertu zen; gizakiak ohoratzen ikasi dut eta langile soilak baino baliogabea sentituko nintzateke, ikuspegi honek beste denentzako balio bat duela usteko ez banu: gizatasunaren eskubideak eratzea¹³.

Beraz, garbi dago teoriar Humeren aldetik jasotako desamestearen parekoa jaso zuela alde honetatik ere. Aurreko metafisikak ez bazuen balio, ez zen ezagutzaren mailan zituen akatsengatik bakarrik, etikan okerra zelako batez ere baizik. Gainera geroko bi ideia nagusi aurreratzan dira, unibertsaltasunaren ideia¹⁴ eta askatasunaren nagusitasuna¹⁵.

Jakina denez 70.eko hamarkada lan isileko garaia izan zen. Bere *Vorlesungen über Metaphysik* eta batez ere *Vorlesungen über Ethik*

11. *Der Mensch aber ist keine Sache, mithin nicht etwas, das bloss als Mittel gebraucht werden kann, sondern muss bei allen seinen Handlungen jederzeit als Zweck an sich selbst betrachtet werden*, Grund. IV, 429.

12. Johann Gottfried Herder, *Briefe zur Beförderung der Humanität*, 79. or. (*Sämtliche Werke*, XVII, Georg Olms, Hildesheim, 1967, 404. or.).

13. *Ich bin selbst aus Neigung ein Forscher. Ich fühle den ganzen Durst nach Erkenntnis u. die begierige Unruhe darin weiter zu kommen oder auch die Zufriedenheit bey jedem Erwerb. Es war eine Zeit da ich glaubte dieses allein könnte die Ehre der Menschheit machen u. ich verachtete den Pöbel der von nichts weis. Rousseau hat mich zurecht gebracht. Dieser verblendende Vorzug verschwindet, ich lerne die Menschen Ehren u. ich würde mich unnützer finden wie den gemeinen Arbeiter wenn ich nicht glaubtete dass diese Betrachtung allen übrigen einen Werth ertheilen könnte, die rechte der Menschheit herzustellen*, Ak. XX, 44.

14. *Demnach kann wahre Tugend nur auf Grundsätze gepropft werden, welche, je allgemeiner sie sind, desto erhabener und edler wird sie*, *Beobachtungen*, II, 217.

15. *Der freien Willkühr alles zu subordinieren ist die Grösste Vollkommenheit*, AK. XX, 144.

unibertsateko hitzaldiak irakurri behar dira 80.eko hamarkadako etikako lan nagusien edukia neurri handi batean (filosofia teorikoko lan nagusia prestatzen ari zen bitartean) ikasleen aurrean hamar urte lehenago nola harrezkero aurreratu zituen ohartzeko. Erabat baztertu beharreko ideia da Kant-ek teoria lehen kritikan eta etika bigarreanean landu zituelako, hau ondorio soiltzat hartzea, benetan bere filosofiaren oinarri sakonena denean. Kant-en ekarpen nagusia aipatu beharko balitz, bere aurretiko etika teoriaren ondorio izatearen ikuspegia deuseztu eta etikari bere autonomia ematea litzateke askatasunaren ideia bitartez.

Lan isil hau lehenengoz 1781eko *Arrazoimen hutsaren kritika*-ren azken zatian azalduko da. Hemen dagonekoz bere etikaren ezaugarria izan daitekeena aipatzen du:

Egin behar denari buruzko legeak egiten den horretatik hartu edo honen bitartez mugatzea gaitzesgarria da¹⁶.

Askatasunaren ideia ere azaltzen da eta autonomiaren kontzepturik ez badago ere, bere edukinetik hurbil dabil.

Bere zentzu praktikoan askatasuna sentimenaren eraginen inposaketarekiko nahimenaren independentzia da¹⁷.

1785eko *Ohituren metafisikaren oinarriak* lanean kontzeptu etiko

nagusi gehienak agertzen dira, era herrikoian azalduta, *Arrazoimen hutsaren kritika*-k izan zituen gaizki ulertuak saihesteko. Baina asmo horrek ez zuen arrakastarik izan eta 1788an *Arrazoimen praktikoaren kritika* idatzi zuen era sistematikoago batean eta zenbait gaitan gehiago sakonduz.

Garai nagusi honen ondoren ere badaude ekarpen garrantzitsuak 1790eko *Juzgamenaren kritika*-n, 1793ko *Erljioa*-n eta 1784-1796 tarteko historia eta politikari buruzko aldizkarietarako lan txikietan. Baina azkenengo puntu nagusia 1797ko *Ohituren metafisika* izango da. 1786ko naturaren metafisika baten parekide orain ohituren metafisika bilakatuko du bi zatitan, zuzenbidea eta bertuteari buruzkoak. Lan berantiar honetan lege etiko orokorrak giza natura konkretuan aplikagarriak ote diren aztertu nahiko du.

Oinarrizko edukiak

Kant-ek etikaren a priorizko osagaiak aurkitu nahiko ditu arrazoimenaren jokabide praktikoan. Eta horretarako giza natura bat eta bere baldintza enpiriko guztiak baztertzeko dituen.

Betebeharraren oinarria ez da giza naturan bilatu behar ezta gizakia kokatuta dagoen munduaren gorabeheretan ere, *a priori* baizik, arrazoimen hutsaren kontzeptuetan soilik¹⁸.

16. *Es ist höchst verwerflich, das Gesetze über das, was ich thun soll, von demjenigen herzunehmen, oder dadurch einschränken zu wollen, was gethan wird*, KrV. A319/B375.

17. *Die Freiheit im praktischen Verstande ist die Unabhängigkeit der Willkür von der Nothigung durch Antriebe der Sinnlichkeit*, KrV. A534/B562.

18. *Der Grund der Verbindlichkeit hier nicht in der Natur des Menschen, oder den Umständen in der Welt, darin er gesetz ist, gesucht werden müsse, sondern a priori lediglich in Begriffen der reinen Vernunft*, Grund. IV, 389.

Zer geratzen zaigu orduan?

Ezinezkoa da ezer irudikatzea munduan edo bertatik at erabat ona deritzana nahimen ona izan ezik¹⁹.

Nahimen ona bere bete-beharra jarraitzen duena da, eta ez bere joera soila. Gainera ekintzak betebeharraren arabera egin daitezke (legetasuna) edo betebeharragatik (etikotasuna). Salneurri egokiak jartzen dituen dendari batek, hala behar duela uste duelako edo azkenean horrek irabazi handienak emango dizkiola uste izateagatik egin dezake hori. Giza nahimena ez da saildua, ez du egiten beti berez ona dena. Maxima subjektiboak printzipioetara egokitzea ez da gauza ziurra, gaizkia hori besterik ez da, bakoitzaren maxima lege unibertsal bilakatzeko ezintasun etikoa. Hau garrantzitsua da ilustrazioa ulertzeko. Kant-en ilustrazioa ez da metafisikaren kritika eta aurriritzien ezabaketa soila, askatasunaren gizarte-aurrerapenen aldeko borroka baizik. Eta hau, beraz, betebeharrak bat bezala agertzen da eta ondorioz lege bat eskatzen du.

Legearen ezaugarria, ezagutzarekin gertatzen zen bezala, unibertsaltasuna da. Beraz, maxima edo jokaeraren oinarri subjektiboak ere unibertsaltasun hori gauzatu beharko du. Horregatik honela dio inperatibo kategorikoak:

une berean nire maxima lege unibertsal bezala nahi izan ahal badut bezala ekin behar dut²⁰.

Honek hauxe esan nahi du, erabat ona delako, horixe egin behar duzu. Badago inperatibo hipotetiko problematikoa ere. Honek hauxe dio: zerbait lortu nahi baduzu, zera egin behar duzula. Baina honek ez du lege orokorrik ezartzen, banakako joera enpirikoen nahasketa besterik ez. Badago, halaber, inperatibo hipotetiko asertorikoa: zoriona nahi baduzu, hauxe egin behar duzu. Baina zorionak enpirikoa izaten jarraitzen du, baldintzatua, bakoitzarentzat desberdina izan daitekeena. Beraz, inperatibo kategoriko baldintzagabe-tuak bakarrik eman dezake oinarri finko bat etikarentzat.

Ikus dezagun nola jokatzeko duen honek Kant-ek sarritan aipatzen duen adibide baten bidez. Egoera larri batetik ateratzeko gezurra esatea erabakitzen dugu. Baina, hau etikoa al da? Hori jakiteko egin behar den galdera hau da: nahi izan ahal nezake orain ni egitera noana lege unibertsal bilakatzeko? Erantzuna "ez" da. Gezurra esateko ahalbidea unibertsala egiten badut, akabo egiarekin, bien arteko desberdintasuna desagertzen baita eta horrek edozein giza harreman ezinezkoa egiten duelako.

Kant-ek inperatiboaren beste formak ere aipatzen ditu, nahiz denak oinarritzko funtsaren adierazpen desberdinak besterik ez izan. Aipagarrienak bi hauek dira:

Zure ekintzaren maxima zure nahimenaz naturaren lege unibertsal

19. *Es ist überall nichts in der Welt, ja überhaupt auch ausser derselben zu denken möglich, was ohne Einschränkung für gut könnte gehalten werden, als allein ein guter Wille*, Grund. IV, 393.

20. *Ich soll niemals anders verfahren als so, dass ich auch wollen könne, meine Maxime solle ein allgemeines Gesetz werden*, Grund. IV, 402.

bihurtuko balitz bezala ekin ezazu²¹.

Eta bigarrena:

Gizatasuna, zure pertsona edo besteengan beti eta une berean xede bat bezala eta inoiz ez bitarteko bat bezala erabiliz ekin ezazu²².

Honen adibide oso konkretu bat ematen du Kant-ek:

Soldatapean jendea edukitzeak hil daitezen edo hil dezaten, beste baten eskuko –estatua– makina eta tresna moduko gizakiaren erabilera dirudi; guregan dauden giza eskubideekin bat ez datorrena²³.

Baina zerk bultzatzen du legea jarraitzea? Berarekiko begiruneak. Hau ez da sentipen enpirikoa, zentzuetako inpresioek sortutakoa, arrazoimenaren sentipen hutsa baizik, *a priori* ematen den bakarra. Harmen bat da beraz, baina objekturik gabe, edo hobe esanda kanpoko objekturik ez duena, legea baita bere objektu berezia. Bitarteko hau sortzen da subjektu mugatuaren eta legearen arteko loturaren alde, baina askotan ahula gertatzen da joera enpirikoekin alderatuz.

Orain artekoan sakonduz, lege honen eta etika osoaren oinarria autonomian jarri behar dugu, hau da, arrazoimenak berari legeak emateko gaitasunean. Autonomia hau legearen

unibertsaltasunarekin erraz jartzen da harremanetan. Unibertsaltasunak kontraesan eza adierazten du. Kontraesana logika hutsaren oinarria da, hau da, erabat formala, edukirik gabekoa da. Legeak kontraesana ez onartzeak haxe esan nahi du, autonomia dela maila handiengan, orain aipatzen ari garen osagai hori ez baita kanpotik gehitzen zaion eduki heteronomoa, barneko ikuspegi formala baizik; beraz, legeak ez du kanpotik letorkiokeen ezer behar. Autonomia eta unibertsaltasuna legearen erabateko formaltasunean bateratzen dira. Autonomia beraz, subjektutik sortzen den arren erabat objektiboa da orokortasunarekiko lotura erdiesten duelako. Heteronomia berriz objektuei zuzenduta dago eta, horrexegatik, erabat subjektiboa da, arrazoimenak objektuekiko joera enpirikoak jarraitzen dituelako. Kant-en ustez berea aurkeztu aurreko sistema etiko guztiak heteronomoak izan ziren, oinarri materialak zituztelako, hala nola hezkuntza, konstituzio zibila, sentipen fisikoa edo etikoa, perfekzioa, jainkoaren nahimena. Hemen ezin da aurkitu lege praktikoko formalik eta ondorioz ezta askatasunaren ulermen egokirik ere. Kant-ek azaleko ikuspegi baten, hau da, bakoitzak berak nahi duena egitearen guztiz aurkako ikuspegia dakar. Askatasuna norberak betebeharreko legea jartzeko gaitasuna da eta *ezin da bakoitza legerik gabe aske izatea baino gauza nazkagarriagorik irudikatu*²⁴.

21. *Handle so, ob die Maxime deiner Handlung durch deinen Willen zum allgemeinen Naturgesetzes werden sollte*, Grund. IV, 421.

22. *Handle so, dass du die Menschheit sowohl in deiner Person, als in der Person eines jeden andern jederzeit zugleich als Zweck, niemals bloss als Mittel brauchst*, Grund. IV, 429.

23. *Wozu kommt, dass, zum Töden oder getötet zu werden in Sold genommen zu sein, einen Gebrauch von Menschen als blossen Maschinen und Werkzeugen in der Hand eines Andern (des Staats) zu enthalten scheint, der sich nicht mit dem Rechte der Menschheit in unserer eigenen Person vereinigen lässt*, Frieden, VIII, 345.

24. *Wäre aber jeder frey ohne Gesetz, so könnte nichts schreckliches gedacht werden, in Naturrecht Feyerabend XXVII-2, 2, 1320.*

Legea eta askatasunaren arteko harremana esaldi batean ongi labur dezakegu:

Askatasuna noski lege moralaren *ratio essendi*, baina lege morala askatasunaren *ratio cognoscendi* dela gogoratu besterik ez dut nahi²⁵.

Hau da, guk legea daukagu, inperatiboa *Faktum* bat bezala, eta honen bidez dakigu aske garela; askatasuna ezin dugu zuzenki objektu bat bezala ezagutu, objektu guztien ezagutzaren oinarrian dagoelako hain zuzen; arrazoimenak bere buruari inperatiboa ezartzean bakarrik jabetzen gara berataz. Bestalde, garbi dago askatasuna legearen izatearen oinarria dela.

Ikuspegi okerren artean Kant-ek batez ere zorionaren kasua lantzen du. Esan dugun bezala hau printzipio hipotetiko da, baldintzatua, baina ez problematikoa, ez guztiz enpirikoa, asertorikoa baizik, emana zaigun neurrian. Hala ere honek esan nahi du zoriona ezin daitekeela inola ere etikaren oinarri izan, ez baita unibertsalgarria, joera bezala orokorra izanik ere bere edukia ezin baita orokortu. Horregatik testu gogorrek ditu zorionaren aurka, zoriona etikaren oinarri hartzeari *moral ororen eutanasia*²⁶ deituz, *zoriona* ez baita *arrazoimenaren ideala, irudimenarena baizik*²⁷. Hala ere ez da ulertu behar

Kant-ek zoriona eta joera naturalak erabat gaitzesten dituenik. Ezin du onartu zoriona etikaren oinarri bihurtzea, baina badu hark bere zentzua etikaren ondorio bezala:

Joera naturalak bere baitan hartuta onak dira, hau da, ez gaitzesgarriak, eta erauzi nahia alferrikakoaz gain kaltegarria eta kritikagarria da; aurrez hezi behar dira batzuk besteekin ez ahitzeko, baizik zoriona deritzon osotasun batean biltzeko²⁸.

Beti ere ordea zorionaren aurretik zoriontsu izateko duintasuna jarri beharko da.

Zorionaren gaia arrazoimen praktikoaren dialektikara eta beraz postulatueta sarrera bezala erabiltzeko aproposa da. Epikureoak bere zoriona bilatzen du eta horrek bertutea barnebiltzen duela uste du; estoikoak bertutea bilatzen du eta ondorioz zoriona jasoko duela uste du. Ongi gorenak (*summum bonum*) bi atalak lotu beharko litzuke, baina lotura hori zalantzazkoa bezala agertzen da, ez baita analitikoa, sintetikoa baizik. Orainartekoaren arabera erraz pentsa daiteke Kant-ek epikureoari arrazoa kenduko diola eta estoikoari modu baldintzatuan bakarrik emango diola, ez baita bertute-tsua izan behar zoriona lortzeko, bertutetsua horrela behar duelako izan behar baita eta horrek agian ondorioz zoriona ekarriko baitu.

25. *So will ich nur erinnern, dass die Freiheit allerdings die ratio essendi des moralischen Gesetzes, das moralische Gesetz aber die ratio cognoscendi der Freiheit sei*, KpV. V, 5oh.

26. *Euthanasia (der sanfte Tod) aller Moral*, MS. VI, 378.

27. *Weil Glückseligkeit nicht ein Ideal der Vernunft, sondern der Einbildungskraft ist*, Grund. IV, 418.

28. *Natürliche Neigungen sind, an sich selbst betrachtet, gut d.i. unverwerflich, und es ist nicht allein vergeblich, sondern es wäre auch schädlich und tadelhaft, sie ausrotten zu wollen; man muss sie vielmehr nur bezähmen, damit sie sich untereinander nicht selbst aufreiben, sondern zur Zusammenstimmung in einem Ganzen, Glückseligkeit genannt, gebracht werden können*, Rel. VI, 58.

Zergati etiko batek (bertuteak) izan dezake sentimenezko ondorioa (zoriona), baina hau horrela izango denik ez dago frogatzerik naturazko zergatien mailan geratzen bagara. Bertutea eta zoriona erabat lotzeko beste mundu baten eta jainkoaren ideiak postulatu behar dira. Kant-ek behin horrela aipatzen badu ere garbi geratu behar du askatasuna ez dela inola ere beste postulatu bat, lege moralaren oinarria baizik:

Askatasuna ordea ahalgarritasuna a priori dakigun arrazoimen espekulatioaren ideien arteko bakarra da, hura aztertu gabe ordea, ezagutzen dugun lege moralaren baldintza baita. Jainkoa eta hilezkortasunaren ideiak ez dira ordea lege moralaren baldintzak, lege honen bidez determinatutako nahimenaren beharrezko objektuen baldintzak bakarrik baizik²⁹.

Baina gainera postulatuaren teoria lege moralarekin erabat kontra-esanetan dago, lehen baztertutako eudemonismoa, hau da, heteronomia, modu dialektiko batean birjasotzen baitu. Ongi gorenaren ideiarekin inperatiboari honek bere xedeak osoki bete behar dituelako ideia gehitzen zaio, baina honekin nahimenaren objektu oso bat edo nire ekintza osoarekiko epaiketa bat sartzen da etikan. Honekin nabarmenki etikaren abiapuntu bera ezabatzen da, hau da, arrazoimenaren autonomia alde batera geratzen da. Gure ekintzak ezin ditugu egin beste bizitza bat edo jainko bat dagoela pentsatuz, hori egitean etikaren oinarria desagertzen baita.

Jainkoan edo hilezkortasunean sinets daiteke horrek gure jarrera etikoa inola ere aldatuko ez badu, arrazoizkotasuna dute ezertarako balio ez dutenean bakarrik, benetan balio duena arrazoimenaren autonomia baita. Legeztasun osoz sinets daiteke jainkoagan, etab.engan gauza horietan sinestea ezer ez sinestea bezala bakarrik denean.

Ohiko zenbait kritika

Hotza izatea aurpegiratzen zaio. *Fiat iustitia, pereat mundus* esana jarraituz joerak eta sentipenak erabat baztertzen omen dira. Erantzuna: etikak arrazoizkoa izan behar du eta beraz joerak edo sentipenak ondorio bezala bakarrik onar daitezke, inoiz ez ekintzaren oinarri bezala.

Bere formaltasun abstraktua aurpegiratzen zaio. Bere teoriak ez omen du eduki konkreturik. Erantzuna: etikaren oinarriak formala izan behar du, kontrafaktikoa, zientziaren legeak bezala. Arrazoimenaren autonomiak horrela eskatzen du. Etikaren formalismo idealistak hauxe esan nahi du, zerbait badagoela merkantzia ez dena, salneurririk ez duena, duintasuna baizik. Honek gizarte burgesarekiko duen indar kritikoa nabaria da.

Etikan duen erradikaltasuna politika mailan baretzea aurpegiratzen zaio. Erantzuna: neurri batean egia izan arren, Kant-ek garaiko arazoei buruz dioenaren orde z bere ideia politikoen

29. *Freiheit ist aber auch die einzige unter allen Ideen der spekulativen Vernunft, wovon wir die Möglichkeit a priori wissen, ohne sie doch einzusehen, weil sie die Bedingung des moralischen Gesetzes ist, welches wir wissen. Die Ideen von Gott und Unsterblichkeit sind aber nicht Bedingungen des moralischen Gesetzes, sondern nur Bedingungen des notwendigen Objekts eines durch dieses Gesetz bestimmten Willens*, KpV. V, 5-6.

oinarrietan begiratzeko badugu etikaren indar kritikoa berbera aurki daiteke bertan.

Etika hau luteranismoaren sekularizazioa besterik ez dela aurpegiatzen zaio. Erantzuna: ideia hau kritikoa itsuek edo Kant bere alboan eduki nahi duten teologoek erabiltzen dute. Baina Kant-en azken urteetako testuak begiratzeko badira, 90.eko hamarkadakoak, beraietan alderantzizko joera nabaritzen da, erlijioa etikan desegiten da, esan dugun bezala haren edukiak etikarekin ez baitatoz batere ondo. *Opus postumum*-ean jainkoaren ideiak ez dauka erlijioarekin zerikusirik, honek ez baitauka jadanik lekurik.

Natura eta askatasunaren arteko etena aurpegiatzen zaio. Honek hizkuntzan du oinarri indartsua *Wohl/Gut, Böse/Schlecht, Bewusstsein/Gewissen* bereizketekin. Erantzuna: bi atalak ez dira banandu behar, baina bereizketa gorde egin behar da, gizakia ez baita naturako objektu soila, beste subjektuekin harremanean objektuak objektu bihurtzen dituen subjektua baizik.

Azken orduko konpondu gabeko arazoak

Kant-ek 90.eko hamarkadan eta heriotzararte izan zuen egiteko nagusia bere filosofiaren sistema bateratu bat lortzea izan zen. Hau

igarobidearen ideien bitartez gauzatzen saiatu zen. Hau ez da bere filosofiako atal berri bat, lehendik zeudenen lotura lortzeko bitarteko osagaia baizik:

Batetik besterako igarobidea ez dagokio zientzia bati, sistemaren artikulazioa edo antolaketa esan nahi baitu, baina ez bertako gune bat³⁰.

Igarobideak bi zentzu ditu: batetik, arrazoimenaren erabilpen teoriko eta praktikoen lotura; bestetik, ezagutza eta etikaren oinarri transzendentaletatik ezagutza eta etika konkretuetarako urratsa.

Lehenengo arazoa natura eta askatasunaren arteko aurkakotasuna bezala aurkezten da:

Giza ekintza berebetean askatasuna eta beharrezkotasun naturalaren artean benetako kontraesanik ez dagoela suposatu behar da; ezin baita ezabatu ez naturaren kontzeptua ezta askatasunarena ere³¹.

Askatasunaren xedeak lortzeko moduko naturak pentsagarria izan behar du. Hala ere natura eta askatasuna ez dira hainbeste bereizten, biak subjektuaren legeak bezala begiratzeko baditugu, bata objektuei ezarria eta bestea norberak ezarrita daukana:

Naturala deritzo (*formaliter*) ordena baten legeen arabera ondorioztatzen denari, edozein izanik hau, eta beraz morala ere bai (ez beti beraz fisikoa

30. Denn zum Übergange aus einer in die andere kann gar keine Wissenschaft gehören, weil dieser nur die Artikulation oder Organisation des Systems und keinen Platz in demselben bedeutet, KU. V, 416.

31. Diese muss also wohl voraussetzen: kein wahrer Widerspruch zwischen Freiheit und Naturnothwendigkeit ebenderselben menschlichen Handlungen angetroffen werde, denn sie kann eben so wenig den Begriff der Natur, als den der Freiheit aufgeben, Grund. IV, 456.

bakarrik). Horri ez naturala aurkakotzen zaio, naturagaindikoa edo naturaurkakoa izan daitekeena³².

Natura eta etika bere oinarrian biltzen dira, subjektuan, eta zuzenki hau adimen edo arrazoimen bezala azaldu baina lehenagoko puntuan, hau da, puntu sakonenean, juzgamenean. Kant-ek 1790ko *Juzgamenaren kritika*-n subjektua ikuspegi sistematiko batetik aztertuko du (batez ere lan honen "lehen sarrera" bezala ezagutzen denean), hau ezagutzaile edo ekile izan baino lehenagoko egituran.

Edertasunaren unibertsaltasun subjektiboa etikotasuna eta ezagutzaren legepekoaren oinarria da. Hori lan guztian nabaritzen da, baina adibide bakarra aipatuko dut:

Gustamenaren judizioan pentsatzen den determinazio orokorraren beharrezkotasuna, zentzu arrunt baten auresuposamenean objektibo bezala aurkezten den beharrezkotasun subjektiboa da³³.

Kant-ek dioena edertasuna jasotzean subjektu ororen gaitasun amankomunak jokoan egotea da, baina sentipen subjektibo bati lotuta, hau da, oraindik kontzeptu edo xede batean determinatu aurretik.

Bizitzaren gaiarekin berdin gertatzen da. Bertan subjektuaren

oinarrizko berezkotasuna dugu, gero ezagutzan edo etikan modu zehaztu batean gauzatuko dena. *Berezkotasun orok bizitzaren kontzientzia behar du*³⁴.

Kant-ek azken garaian, 1801 eta 1803 artean, idatzi zituen testuetan arlo berdina lantzen du:

Berezkotasuna eta harmena, biak sistema batean lotuta, jainkoa, mundua eta ni, bi objektuak subjektu batean lotzen ditudala³⁵.

Beraz, subjektuak jokutzen du jainkoa (hau da, inperatibo kategorikoa edo etika bera azken finean) eta munduaren (hau da, bere ezagutza objektua) arteko igarobidearen tokia bezala eta bertan beraz aztertu beharko dira bere bi objektu nagusi horiekiko harremana ahalbidetzen duten baldintzak.

Igarobidearen beste zentzuarekiko, teoria mailan kategoria traszendental eta kontzeptu enpirikoen artean Kant-ek zulo bat ikusten zuela esan behar da. Horregatik bitarteko kontzeptu batzuen beharra aipatuko du mugimenduaren kontzeptua ondo lotzeko eta horrela fisikara igarobidea lortzeko. Gai hau azken urteetan landu zuen eta argitaratu gabe geratu zen urte askotan. Baina orain gure interesa Kant-en filosofiaren egiturazko arazo

32. *Natürlich* (formaliter) *heisst, was nach Gesetzen einer gewissen Ordnung, welche es auch sei, mithin auch der moralischen (also nicht immer bloss der physischen) nothwendig folgt. Ihm ist das Nichtnatürliche, welches entweder das Übernatürliche, oder das Widernatürliche sein kann, entgegengesetzt*, Ende. VIII, 333oh.

33. *Die Nothwendigkeit der allgemeinen Bestimmung, die in einem Geschmacksurtheil gedacht wird, ist eine subjective Nothwendigkeit, die unter der Voraussetzung eines Gemeinnsinns als objectiv vorgestellt wird*, KU. V, 239.

34. *Alle Selbstthätigkeit befördert das Bewusstseyn des Lebens*, in *Reflexionen zur Anthropologie* XV-1, 78.

35. *(Spontaneität u. Receptivität, beyde in einem System verbunden). Gott, die Welt, und Ich der Beyde Objecte in einem Subjecte verbindet*, Op. XXI, 22.

hau bera etikaren mailan nola agertzen den aztertzea da.

Lehenengoz Kant-ek gai hau zuzenean ia ez zuela ukitu ere egin esan behar da, 1797ko *Ohituren metafisika*-n bakarrik ihardun zuen pixka bat honetaz. Beraz, hemen lan desberdin askotan egiten dituen aipamen puntualak zentzuki lotzen saiatuko naiz. Alde batetik ulergarria da Kant-ek lehenago gutxi esatea, betebeharraren determinazioa eta zatiketa-sistemaren egitekoa zela uste baitzuen, ez kritika berarena³⁶. *Grundlegung*-aren sarreran bertan dio juzgamenaren bidezko aplikazio hori, antropologia praktikoa edo horrelako zerbait litzatekeena, zaila dela³⁷. Teorian kontzeptua eta begiespena lotzen zituen juzgamenaren ekintza eskematismoa bazen, etikan tipika daukagu (*Von der Typik der reinen praktischen Urtheilskraft*, KpV. V, 67-71). Teorian begiespenak objektuarekin harremana ematen zuen, baina hemen ez daukagu horrelakorik, hemen legearen beraren eskematizazioa egiten da adimenaren tipo formalen bitartez. Ez dira beraz ekintza konkretuak determinatzen, baizik kontzientzia morala tipifikatzen. Horretarako arau bat ere ematen du:

Galde diezaiokezu zeure buruari proposatutako ekintza, naturaren lege baten arabera gertatu beharko balu zu haren zati bat izanik, zure nahime-

naren arabera ahalgarritzat hartuko zenukeen³⁸.

Baina funtsean inperatiboaren beste formula bat besterik ez da eta ez du gehiegi argitzen tipoen ideia nola gauzatzen den.

Arazo hau ondoren *Juzgamenaren kritika*-n etikarentzat egokia den sentimen baten bilaketa bezala aztertuko du. Gai hau Schillerrek landuko du ondoren, baina estetika hutsean geratuz, Kant-ek 59. paragrafoan (*edertasuna etikotasunaren sinbolo bezala*, KU. V, 351-354) etikarako ere erabiltzen duela ahaztuz.

Gaia azkenik 1797ko *Ohituren metafisika*-n azaltzen da etikaren oinarriaren eta zuzenbidearen arteko harreman arazotsua bezala, bigarrena lehenaren konkrezioa den neurrian igarobide bat beharko baita, teoria mailan naturaren metafisikatik fisikara bezala.

Naturaren metafisikatik fisika-ra igarobide bat behar den bezala, arau bereziak dituen igarobidea, eskubide osoz zerbait antzekoa eskatzen zaio ohituren metafisikari: hau da, betebeharraren hutsaren printzipioak eskematizatu esperientziako kasuei aplikatuz eta erabilera praktiko-moralerako prest aurkeztu³⁹.

Horrela sentipen morala, kontzientzia, maitasuna eta begiruneaz hitz

36. KpV. V, 8.

37. Grund. IV, 389.

38. *Frage dich selbst, ob die Handlung, die du vor hast, wenn sie nach einem Gesetze der Natur, von der du selbst ein Theil wärest, geschehen sollte, sie du wohl als durch deinen Willen möglich ansehen könntest*, KpV. V, 69.

39. *Gleichwie von der Metaphysik der Natur zur Physik ein Überschritt, der seine besondern Regeln hat, verlangt wird: so wird der Metaphysik der Sitten ein Ähnliches mit Recht angenommen: nämlich durch Anwendung reiner Pflichtprincipien auf Fälle der Erfahrung jene gleichsam zu schematisieren und zum moralisch-praktischen Gebrauch fertig darzulegen*, MS. VI, 468.

egingo du bitarteko subjektibo bezala⁴⁰. *A priori* material baten kontzeptu paradoxala onar dezakegu, izaki autolegegileen erresuma hain zuzen, eta horrek xede nagusi bat ematen du, gizatasuna bera subjektu bakoitzean. Honek xede arrazionalen sistema bat ekarri behar du: norbere perfekzioa, besteen zoriona, e.a. Beraz, oinarritzeari aplikazioa batu behar zaio eta hor orokortasun handienaren irizpidea erabili beharko da

enpirikotasunaren arrazoigabetasunean ez erortzeko, lan zaila dena, Kant-ek berak ere muga hau errespetatu ez izatean nabarmentzen den bezala. Baina inperatiboaren aplikazio orokortzaile zehatz batekin bukatuko dut, Kant-en osatugabeko ideia honen norabidearen adierazgarri moduan:

Herriak berez erabaki ezin duena, oraindik gutxiago erabaki dezake erregeak herriaren orde⁴¹.

Aipamenen argibidea⁴²

Op.: *Übergang von den metaphysischen Anfangsgründen der Naturwissenschaft zur Physik*, edo *Opus postumum* [hil osteko lan bukatugabea; lehenengo argitalpen osoa Berlineko Akademiak 1936 eta 1939an egindakoa da lan osoen XXI eta XXII. ataletan].

Beobachtungen: Beobachtungen über das Gefühl des Schönen und Erhabenen (1764).

KrV.: Kritik der reinen Vernunft (1781 eta 1787).

ProL.: Prolegomena zu einer jeden künftigen Metaphysik, die als Wissenschaft wird auftreten können (1783).

Aufklärung: Beantwortung der Frage: Was ist Aufklärung (1784).

Grund.: Grundlegung der Metaphysik der Sitten (1785).

KpV.: Kritik der praktischen Vernunft (1788).

KU.: Kritik der Urtheilskraft (1790).

Rel.: Die Religion innerhalb der Grenzen der bloßen Vernunft (1793).

Ende: Das Ende aller Dinge (1794).

Frieden: Zum ewigen Frieden (1794).

MS.: Metaphysik der Sitten (1797).

Streit: Der Streit der Fakultäten (1798).

40. MS. VI, 399 hh.

41. *Was aber nicht einmal ein Volk über sich selbst beschliessen darf, das darf noch weniger ein Monarch über das Volk beschliessen*, Aufklärung, VIII, 39-40.

42. Immanuel Kant-enak dira testu guztiak.